



Campagne de communication institutionnelle visant à sensibiliser les adultes à l'apprentissage de la langue basque
Euskararen ikastera helduen sensibilizatzeko komunikazio kanpaina

Contexte et présentation du projet :

Dans l'objectif d'engager le travail de définition d'un cadre de politique publique dans le domaine de l'apprentissage du basque par les adultes d'initiative personnelle, un état des lieux du domaine a été réalisé par les services de l'OPLB, et une proposition de feuille de route a été élaborée afin d'encadrer ces travaux de définition. Ces documents ont été soumis à l'approbation de l'Assemblée générale du 30 juin 2022. L'un des 7 enjeux du domaine fixés dans la feuille de route présentée prévoit d'« accroître la demande de formation par une stratégie de sensibilisation et communication sur l'offre de formation et sur l'intérêt d'apprendre la langue basque ». Ainsi, une fois les travaux de structuration du domaine engagés, les partenaires définiront ensemble la stratégie de sensibilisation et communication à mettre en place, ainsi que les outils et les modalités d'intervention des différents partenaires.

Dans l'attente, dans le but de sensibiliser la population adulte à l'apprentissage de la langue basque, la CAPB a lancé en 2020 et 2021 une campagne de communication multimédias « Vivez le Pays Basque en VO ». La campagne, financée intégralement par la CAPB, a été élaborée en concertation avec les organismes de formation du territoire et l'OPLB.

La campagne de 2021, pour un budget total de 40.000 € (30.000 € en 2020), était composée de différents supports :

- 5 visuels jouant sur l'humour et les incompréhensions suscitées par la langue diffusés par le biais de la presse locale, via un affichage sur tout le territoire ainsi que sur les réseaux sociaux ;
- 2 courtes vidéos de campagne diffusées via différents canaux et médias ;
- une page web japprendslebasque.com donnant accès aux sites des organismes de formation du territoire.

La campagne a été très visible et a fait parler d'elle, comme l'attestent les chiffres suivants :

- 8.000.000 de contacts visuels (estimés) pour l'affichage dans l'espace public ;
- 360.000 vues pour les deux films (24.000 vues intégralement) ;
- 18.000 visites sur la « landing page » (japprendslebasque.com) entre le 1er septembre et le 5 octobre, avec une moyenne de 600 visiteurs par jour et un total de 15.000 premières visites ;
- 3.000 « likes » cumulés sur les réseaux sociaux ;
- 500 commentaires générés ;
- 17.000 interactions.

Testuingurua eta proiektuaren aurkezpena:

Norbanako helduen euskalduntzearen eremuan politika publiko kuadro baten definitzeko lanen partiaraztea helburu, eremuaren argazki bat egin da, bai eta bide orri proposamen bat ere definitze lanen gidatzeko. Dokumentu horiek 2022ko ekainaren 30eko Biltzar Nagusiaren bozkara ekarri dira. Aurkeztu den bide orriak finkatzen dituen 7 erronketarik batek hala dio: "formatzeko galdea garatu, euskara ikasteko eskaintzari eta probetxuari buruz sentsibilizatuz eta komunikatuz". Ondorioz, eremuko egituratze lanak partitu eta, partaideek plantan emanen den sensibilizazio eta komunikazio estrategia elgarrekin definituko dute, bai eta horri lotu tresnak eta partaide ezberdinen esku hartzearen modalitateak ere.

Anartean, populazioa euskararen ikasteari sentsibilizatzeko helburuarekin, 2020 eta 2021ean komunikazio kanpaina multimedia bat parti arazi zuen, "Vivez le Pays Basque en VO". Kanpaina, osoki Euskal Elkargoak diruztatua, EEP eta formakuntza organismoekin kontzertazioan ondu zen.

2021eko kanpaina, 40.000 €ko aitzinkontu orokorra zuena (30.000 € 2020an), 8 euskarrik osatzen zuen:

- 5 afixa ezberdin euskarak eragin dezakeen umorea eta gaizki ulertzeetan oinarritua, prentsa lokala, lurralde osoko afixaketa, eta sare sozialen bidez hedaturik;
- 2 kanpainako bideo labor kanal eta hedabide ezberdinen bidez hedaturik;
- Web orri bat, japprendslebasque.com, lurraldeko formakuntza organismoen webgunera buruz norabidetzeko.

Kanpaina ikusgai izan da eta aipatua izan da, ondoko zenbakiak erakusten duten bezala:

- 8.000.000 begi-kontaktu (estimazio bat) kanpoko afixaketari dagokionez;
- 360.000 ikustaldi bi filmentzat (24.000 ikustaldi osoki);
- 18.000 bisita "landing page"ean (japprendslebasque.com) irailaren 1etik urriaren 5a arte, 600 bisitari eguneko batazbestearekin eta 15.000 lehen bisita orotara;
- 3.000 "atsegite" metaturik sare sozialetan;
- 500 iradokizun agertu dira;
- 17.000 interakzio.

Les organismes de formation ont connu une hausse du nombre d'inscrits dans leur formation en 2021-22 par rapport à l'année précédente, même si cette hausse ne saurait être expliquée exclusivement par la campagne. En effet, d'après les organismes de formation eux-mêmes, au côté de la campagne de communication de la CAPB, cette hausse des inscriptions est aussi en partie liée à la campagne de communication sur le CPF menée par le gouvernement.

Fort de ce bilan positif, et dans l'attente d'un cadre de politique publique concerté dans le domaine de l'apprentissage du basque par les adultes d'initiative personnelle, il est proposé que l'OPLB participe auprès de la CAPB à la campagne de communication pour cette année 2022 :

- participation technique à la conception de la campagne
- participation financière par cofinancement de la moitié du coût de la campagne dans la limite de 20.000 €, par remboursement à la CAPB de la moitié des frais engagés, sur la base du budget prévisionnel suivant et des justificatifs produits :

Aitzineko ikasturteari konparaturik, formakuntza organismoek izen emateen emendatze bat ezagutu dute 2021-22an, nahiz eta ezin zaion emendaketa hau kanpainari soilik lotu. Izan ere, formakuntza organismoen erranetan, Euskal Elkargoaren kanpainaren ondoan, izen emateen goratzea gobernuak eraman duen FKParen inguruko komunikazio kanpainari lotua zaio ere.

Bilan positif, et norbanako helduen euskalduntzearen eremuan politika publiko kuadro partekatua ez dela oraindik bideratua ikusirik, EEPk Euskal Elkargoarekin batean 2022ko komunikazio kanpainan parte har dezan proposatzen da:

- kanpainaren sorreran parte hartze tekniko
- sosezko parte hartzea, kanpainaren kostuaren erdia kofinantzatuz 20.000 €ko muga, engainatuko diren fresen erdia Euskal Elkargoari itzuliz, behereko aitzinkontuan eta justifikagiritan oinarriturik:

Libellé de la prestation Zerbitzuaren detailea	Montant HT Zenbatekoa BEZ gabe	Montant TVA BEZaren zenbatekoa	Montant TTC Zenbatekoa dena barne
Création campagne Kanpainaren sorkuntza	18 000 €	3 760 €	22 560 €
Impression affiches Afitxen inprimatzea	408 €	82 €	490 €
Affichage dans l'espace public Espazio publikoan afitxatzea	7 351 €	1 470 €	8 821 €
Diffusion presse Prentsan hedapena	5 395 €	1 079 €	6 474 €
Diffusion réseaux sociaux Hedapena sare sozialetan	1 500 €	300 €	1 800 €
TOTAL	33 454 €	6 691 €	40 145 €

Délibération :

Sur la base de ces éléments, l'Assemblée générale de l'OPLB décide :

- de participer aux côtés de la CAPB à la campagne de sensibilisation à l'apprentissage du basque par les adultes, en versant à la CAPB, sur la base des justificatifs produits, l'équivalent de la moitié du coût de la campagne, dans la limite de 20.000 € ;
- d'engager sur l'exercice budgétaire 2022 une enveloppe financière de 20.000 € pour permettre ce financement.

Erabakia:

Elementu horiek oinarritzat harturik, EEPko Biltzar Nagusiak erabakitzen du:

- Euskal Elkargoarekin batera, euskararen ikasteko sensibilizazio kanpainan parte hartzera, ekoiztu justifikagiriak oinarri, kanpainaren kostuaren erdia Euskal Elkargoari isuriz, 20.000 €ko muga;
- 2022ko aitzinkontuan 20.000 €ko dirutza engaiatzea finantzamendu honen ahalbidetzeko.

Adopté à l'unanimité.

Aho batez onartua.

